



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko uztailaren 22a

75. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A:

#### Galderak:

- Galdera, ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enpleguko zentro berezien laneko egoera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, egungo hizkuntza-tituluak Europako erreferentziako maila komunekin azkenean izanen duten homologatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Ostizko saihesbideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroan ekoiztako produktuak AEBetara esportatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakari Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepideko obretan eragindako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomen-dioak betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, emakumeari laguntzeko zentroi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du ingeleseko irakasleak birziklatze aldera Kanadan 2008an egindako ikastaroari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

2008an, atzerriko hizkuntzen irakasleei zuzendutako berariazko prestakuntza-programa bat abian jarri zuen Hezkuntza Departamentuak. Nafarroako Gobernuak ezarritako lehentasunezko ekintza-ardatz baten baitan xedatu da programa hori.

Era berean, Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007-2011 Ituna bete zen; izan ere, Itunak berariaz dio Hezkuntza Departamentuak prestakuntza-plan bat taxutuko duela, euskara eta beste hizkuntza batzuk irakasteko prestakuntza eta birziklapena eskainiz.

Atzerriko hizkuntzen irakasleak prestatzeko moldatu den programa zabalaren baitan, atzerrian irakaskuntza-praktikak egiteko programa, irakasle horien prestakuntzan berritzailea inondik ere, abian jarri zen.

Programak helburu nagusi hauek ditu: ingelese era trinkoan ikastea, nazioartera zabaltzea, ingelesez mintzatzen den herrialde baten kultura ezagutzeta, hizkuntza modu errealean erabiltzen den testuinguru batean irakastea, CLIL/EHIL metodologiek aritzea eta dagokion arloko beste herrialde batzuetako profesionalekin harremanak izatea.

Gaztelania-ingelesa programa elebiduna hedatzeko asmoz, 2008ko Nafarroako Aurrekontuek atzerriko hizkuntzen irakasleak prestatzera eta birziklatzera bideratutako kontusalei esker, programa honetarako beharrezkoa den laneko lizentzia lortu ahal izan dute irakasleek.

Atzerrian irakaskuntza-praktikak egiteko programaz gain, beste jarduera batzuk, aurrekoaren moduan espezifikoak, antolatu ziren: ingeleseko ikastaro trinkoak Iruñean eta laneko lizentziaz, uda-ikastaroak atzerrian eta abar.

“Irakaskuntza-praktikak atzerrian 2008” programaren ezaugarriak

1. 8 asteko iraupena, kontuan izanik irakasleek aurrez hizkuntzaren ezagutzarik bazutela.

2. Helburu linguistikoa: hizkuntzan erabat murgiltzea. Beraz, lortu nahi den gutxieneko hizkuntza-maila C1 izanen da.

3. Helburu kulturala: ingelesez mintzatzen den herrialde bateko hezkuntza-sistema, familia- eta gizarte-egitura, geografia eta abar ezagutzeta. Kanada hautatu dugu, besteak beste, programa elebidunetan eta murgiltze-programetan duen eskarmentua dela-eta.

4. Irakaskuntzako helburua: atzerriko ikastetxetan irakastea. Honela sustatuko da:

- Etorkizunean garatuko den irakaskuntza-jarduera testuinguru erreal batean eta helburu-hizkuntzan probatzea.

- Helburu-hizkuntzaren ezagutza hobetzea.

- Helburu-hizkuntzaren balio eta eduki kulturalen ezagutza hobetzea.

- Ingelesez mintzatzen den herrialde bateko lankide eta ikastetxeekin harreman eraginkorrak izatea.

- Metodo didaktikoak ikasi eta aplikatzea.

5. Bi txanda deitu ziren, udaberrikoa eta udazkenekoa, programa eta gastuak baimentzeko Ebazpenen bidez:

5.1. Udaberria: Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren apirilaren 18ko 188/2008 Ebazpena: Ottawa (Kanada), apirilaren 28tik ekainaren 21era, Haur eta Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan atzerriko hizkuntzak ikasteko berariazko programak irakasten dituzten edo irakatsiko dituzten irakasleentzat. Kostua: 63.000 euro, 2008ko gastu-aurrekontuaren 421002 42420 2266 321200 kontusailetik (Irakasleen prestakuntza atzerriko hizkuntzatan). Ordezko irakasleen kontrataziorako 2008ko aurrekontuaren 421002 42420 1312 322900 kontusaila (Gaztelania-ingelesa elebitasuna hedatzeko plana) baliatu zen.

• Udazkena: Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren ekainaren 11ko 278/2008 Ebazpena: Ottawa (Kanada), irailaren 15etik azaroaren 7ra. Kostua: 72.000 euro, 2008ko gastu-aurrekontuaren 421002 42420 2266 321200 kontusailetik (Irakasleen prestakuntza atzerriko hizkuntzatan). Ordezko irakasleen kontrataziorako 2008ko aurrekontuaren 421002 42420 1312 322900 kontusaila (Gaztelania-ingelesa elebitasuna hedatzeko plana) baliatu zen.

“Irakaskuntza-praktikak atzerrian 2009” programaren ezaugarriak

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren abenduaren 23ko 555/2008 Ebazpenak baimendu zuen 2009. urtean atzerriko ikastetxeetan irakaskuntza-praktikak egiteko programa, Haur eta Lehen Hezkuntzako zein Bigarren Hezkuntzako irakasleei zuzendua, zehazki Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publiko jakin batzuetan sustatzen dituen hizkuntzak ikasteko programak irakasten dituztenei.

1. Lekua eta datak: Kanada, 8 asteko 5 txanda, 2009ko urtarrilaren 9tik abenduaren 22ra.

2. Kalkulatu den gutxieneko gastua: 125.000 euro 421002 42420 2266 321200 kontusailetik (Irakasleen prestakuntza atzerriko hizkuntzatan).

3. Lekuen banaketa:

Lekuak honela banatuko dira:

• Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean lanean ari diren ingeleseko irakasleak: 20 leku.

• Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko batean lanean ari diren eta ingelesaren ezagutzak

dituzten irakasleak, beren ikasgaia ingelesez ematen ari direnak edo 2009-2010 ikasturtean emanen dutenak, Hezkuntza Departamentuaren atzerriko hizkuntzak ikasteko programen baitan: 5 leku.

Alabaina, multzo batean leku hutsik geratzen bada, leku horiek beste multzora aldatzeko eskubi-dea izanen du Departamentuak.

Programa 2009. urte osorako baimentzen eta deitzen denez, Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzuak hutsik geratzen diren lekuak gorde ahal izanen ditu irakasle hauentzat: 2009. urtean, profil berezia frogatzeko atal elebidunen deialdien bidez edo lekualdatze-lehiaketan bidez –horiek denak ebazteke daude–, hizkuntzak ikasteko programa bat irakasten duen ikastetxe batean hasten direntzat.

Beraz, Eranskin honetan ezarritako oinarrietan xedatzen den moduan, txandeterako lekuak pixkanaka esleituko dira 2009. urtean zehar.

4. Parte hartzeko baldintzak:

a. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleentzat:

- Funtzionarioa izatea.
- Bere jakintza-arloa ingelesez irakastea.

• Ebazpen honen 2. eranskinean xedatu diren atzerriko hizkuntzak ikasteko programak, eta horien baitako prestakuntza, emateko berariazko konpromisoa hartzea.

• Ingelesean gutxienez B2 maila frogatzea. Maila hori frogatze aldera, Hizkuntza Eskola Ofizialen Gaitasun Agiria eta Maila Aurreratuko egiaztagiria nahiz Cambridgeko Unibertsitatearen First Certificate edo goragoko mailako tituluak onartuko dira. Ingelesaren ezagutza frogatuko duen egiaztagiri ofizialik eduki ezean, Hezkuntza Departamentuak horretarako ezartzen duen proba egin ahal izanen da.

b. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleentzat:

- Funtzionarioa izatea.
- Hizkuntzarena ez den jakintza-arlo bat ingelesez irakastea.

• Ebazpen honen 2. eranskinean xedatu diren atzerriko hizkuntzak ikasteko programak, eta horien baitako prestakuntza, emateko berariazko konpromisoa hartzea.

• Ingelesean gutxienez B2 maila frogatzea. Maila hori frogatze aldera, Hizkuntza Eskola Ofizialen Gaitasun Agiria eta Maila Aurreratuko egiaztagiria nahiz Cambridgeko Unibertsitatearen First

Certificate edo goragoko mailako tituluak onartuko dira. Ingelesaren ezagutza frogatuko duen egiaztagiri ofizialik eduki ezean, Hezkuntza Departamentuak horretarako ezartzen duen proba egin ahal izanen da.

Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat leku hut-sik geratzen bada, ingelesa irakasgai gisa ematen duten irakasleen parte-hartzea onartuko da; hala ere, lehentasuna izanen dute ingelesa irakasgai gisa emateaz gain beste jakintza-arloren bat ingelesez irakasten dutenei.

#### 5. Programaren faseak eta edukia:

- Programa prestatzeko eta informazioa eskaintzeko jardunaldia Iruñean. Parte-hartzaileek informazio xehea eskuratu ahal izanen dute hainbat alderdiri buruz: programaren garapena, Kanadako ingurunea, eskolak eta bizi-moduak, eta bidaiak prestatzeko lagungarria den beste edozein alderdi.

- Ingelesa eguneratzeko programa trinkoa ingelesaren irakaskuntzan espezializatutako eskola batean, Vancouver hirian (Britainiar Columbia).

Parte-hartzaileak taldetan banatuko dira, duten hizkuntza-mailaren arabera. Bi asteko iraupena.

- Praktikak Vancouver aldeko ikastetxeetan. Parte-hartzaile bakoitza ikastetxe batean ariko da, eta han bere espezialitate edo etapan diharduen irakasle-tutore bat egokituko zaio. Irakasle-tutoreak ikastetxeko bizitzan parte-hartzea erraztuko dio, eta harekin eskolak zein metodologia behatu ahal izanen ditu. Bestalde, denborak ezarriko dira bakarkako lana egiteko, proiektua eta memoria ontzeko, ikertzeko eta abar.

- Programa ebaluatzeko eta memoriak aurkezteko saioa Iruñean.

- Familia batean egotea. Programaren alderdi garrantzitsua da honakoa, herrialdearen bizitza erreala eta kultura gertutik ezagutzeko aukera ematen duelako.

Iruñean, 2009ko otsailaren 27ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du hauteskunde sindikalen prozesuak informatizatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du hauteskunde sindikalen informatizazioari buruz (PES-028/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderak bi saihestu ditu:

A) Barrura begira (Lan Zuzendaritza Nagusiaren Hauteskunde Sindikalen Erregistroa), prozesu administratiboa erabat informatizaturik dago 1991.

urtetik, eta ondorengo urteetan hobekuntzak sartu dira.

B) Kanpora begira (interesdunen harremanak Administrazioarekin eta alderantziz), egoera honakoa da:

- Gaur egun, hauteskunde-espeditatea osatzen duten dokumentuak Hauteskunde Sindikalen Erregistroan aurkezten dira, materialki eta fisikoki.

- Une honetan, dokumentu horiek, irailaren 9ko 1844/1994 Errege Dekretuko (Hauteskunde Sindikalen Erregistroa) bigarren xedapen gehigarriaren arabera derrigorrez erabili beharrekoak direnak, ez daude eskuragarri Departamentuaren webgunean, horietako batzuk paper autokopiagarrikoak baitira, baina berehala jarriko dira.

Apirilaren 4ko 11/2007 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzekoak, eta modernizazio-planak xedatutakoaren arabera, Administrazio Elektronikoa ezartzeko plana proiektu-fasean dago.

Bestalde, Erregistroko Bulego Publikoak erregistroko datu guztiak ematen dizkie, telematikoki,

horiek eskatzen dituzten sindikatuei, eta, zehazki-ago, hilean behin Nafarroako hauteskunde sindikaletan emaitzarik onenak lortu dituzten lau sindikatuei.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroan 2000 eta 2008 bitarte garatutako udal industrialdeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa jaunak galdera egin du 2000tik 2008ra Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako industrialdeei buruz (PES-036/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak ez du industrialde bakoitzeko lurzatiek duten erabilerei buruzko dokumentaziorik; hala ere, dirulaguntza eman aurretik, poligonoa industrial edo zerbitzuko gisa kalifikaturik dagoela egi-aztatzten da.

#### **2000. urtea**

Otsagabiako industrialdea:

Azal. gordina: 4.172 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 3.614 m<sup>2</sup>

Monteagudoko industrialdea:

Azal. gordina: 15.427 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 10.531 m<sup>2</sup>

Izabako industrialdea (NSIk sustatua):

Azal. gordina: 3.242 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 2.009 m<sup>2</sup>

Milagroko industrialdea (NSIk sustatua):

Azal. gordina: 78.504 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 64.809 m<sup>2</sup>

#### **2001. urtea**

Leitzako industrialdea:

Azal. gordina: 54.527 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 31.441 m<sup>2</sup>

Erroko industrialdea:

Azpiegituren gabeziari aurre egiteko proiektua.

Azkoiengo industrialdea – El Escopar:

Azal. gordina: 280.567 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 120.330 m<sup>2</sup>

Industrialdea faseka sustatu zen, 1999tik 2007ra.

Azkoiengo industrialdea – Gargantúa:

Azpiegituren gabeziari aurre egiteko proiektua.

Lakuntzako industrialdea:

Azal. gordina: 8.816 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 6.799 m<sup>2</sup>

#### **2002. urtea**

Antzingo industrialdea:

Azal. gordina: 36.624 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 21.766 m<sup>2</sup>

Garesko industrialdea (NSIk sustatua):

Azal. gordina: 121.467 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 73.439 m<sup>2</sup>

Ultzamako industrialdea (NSIk sustatua)

Azal. gordina: 28.757 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 21.940 m<sup>2</sup>

**2003. urtea**Cintruénigoko II. industrialdea (2 fasetan egina):Azal. gordina: 148.874 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 106.202 m<sup>2</sup>Valtierra industrialdea (NSIk sustatua):Azal. gordina: 35.515 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 17.552 m<sup>2</sup>**2004. urtea**Cárcarko industrialdea:Azal. gordina: 159.669 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 51.769 m<sup>2</sup>Leringo industrialdea:Azal. gordina: 163.716 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 112.850 m<sup>2</sup>Alesbesko industrialdea:Azal. gordina: 91.541 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 18.925 m<sup>2</sup>**2005. urtea**Faltzesko industrialdea (NSIk sustatua):Azal. gordina: 43.740 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 24.320 m<sup>2</sup>Sartagudako industrialdea:Azal. gordina: 54.569 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 38.295 m<sup>2</sup>Tafallako industrialdea:Azal. gordina: 46.460 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 30.625 m<sup>2</sup>**2006. urtea**Arbizuko industrialdea:Azal. gordina: 195.424 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 119.949 m<sup>2</sup>

Industrialdea 3 fasetan egin da, 2000tik 2008ra, eta azalera osoa kalkulatu da.

Aresoko industrialdea:Azal. gordina: 108.770 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 67.101 m<sup>2</sup>**2007. urtea**Cintruénigoko industrialdea:Azal. gordina: 95.000 m<sup>2</sup> gutxi gorabehera. Industrialde zahar baten azken fasea da.Lurzatien azal.: 81.857 m<sup>2</sup>Oteitzako industrialdea:Azal. gordina: 28.629 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 15.157 m<sup>2</sup>**2008. urtea**Martzillako industrialdea:Azal. gordina: 72.642 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 69.000 m<sup>2</sup>

(Diruz lagundutako fase bakarrari buruzko datuak)

Deierriko industrialdea:Azal. gordina: 44.957 m<sup>2</sup>Lurzatien azal.: 16.842 m<sup>2</sup>

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enplegu-ko zentro berezien laneko egoera.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko nola arindu nahi duen Nafarroako Gobernuak enplegu-ko zentro berezien laneko egoera.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra–Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zentro Bereziei buruz (PES-038/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Enplegu Zentro Bereziak hauek dira:

AMIMET-CANRASO

CORELLAKO MINUSBALIATU FISIKOEN ETA PSIKIKOEN ELKARTEA (ADISCO)

ALBERNIA-MUGARIK GABEKO ELKARTEA

SAN FERMIN TELETAXI ELKARTEA

CENTRO DE NEGOCIOS OCON, S.L.

DYA SERVICIOS DISCAPACITADOS, S.L.

ELKARKIDE, S.L.

FEVIMAX-LOGÍSTICA, S.L.

LANERAKO ASPACE NAFARROA FUNDAZIOA

BIDEAN LABORAL FUNDAZIOA

FUNDOSA GALENAS, S.A.

GUPOST NAVARRA, S.L.

NASERMO, S.L.

TASUBIN, S.A.

TELIZSA, S.L.

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Lan Zerbitzuaren bidez, dirulaguntza hauek eskaintzen ditu:

– Soldatak ordaintzeko laguntzak LGSren %50 estaltzen du, eta hileror ordaintzen da.

– Gizarte Segurantzarako enpresa-kotizaziorako laguntza (%100) zuzenean ordaintzen dio Nafarroako Lan Zerbitzuak Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari.

– Laguntza-unitateak batera finantzatzeko dirulaguntza sei hilean behin ordaintzen zaio enpresari (aurrerakina eta azken likidazioa).

– Postuak egokitzeko laguntza hala eskatzen duten interesdunen eskariz ematen da, ordainketa bakarrean.

– Inbertsioetarako laguntza urtean behin ordaintzen zaio enpresari, behin inbertsio horiek egin eta ordaindu izana justifikatzen duenean.

Edonola ere, komeni da honen berri izatea:

Estatuarekin, hala autonomia-erkidegoekin nola Administrazio Zentralarekin, alderatuta, Enplegu Zentro Bereziei ematen zaizkien laguntzak oso denbora laburrean ordaintzen ditu Nafarroako Lan Zerbitzuak.

Joan den abenduan, Nafarroako Lan Zerbitzuaren Zuzendaritzak Enplegu Zentro Berezien eta Gizarte Enpresen inguruko sentsibilizazio-kanpaina bat abiatu zuen, administrazio zein enpresa publikoek, Kontratu Legearen 9. artikuluari jarraiki, jarduerak egiteko aukera eman diezaien.

Era berean, joan den otsailaren 9an Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu zuen, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta Gizarte Gaietarako Departamentuaren proposamenez, krisialdiak ezgaituengan eta gizarte-bazterketako arriskua duten beste kolektibo batzuetan izan ditzakeen ondorioak leuntze aldera neurriak ezartzeko. Erabakiaren arabera, kontratuak erreferbatuko dira aipatu entitateetarako, eta ezgaituen zein gizarte-bazterketako arriskua duten beste kolektibo batzuetako pertsonen laneratzea errazteko klausula administratiboak txertatuko dira.

Aipatu laguntzak estatu mailako araudiaren mende daude, eta, beraz, beste autonomia-erkidegoetan ere baliatzen dira. Alabaina, alor horretan ere Nafarroa gizarte aurreratu moduan ageri da, eta Enplegu Zentro Bereziarako laguntza-erregimen berezia du, beste erkidego batzuetan existitzen ez dena edo era apalagoan aplikatzen dena. Laguntza berezi horiek irabazi asmorik



gabeko zentroen aurrekontua orekatzeko dira, eta urtero berritzen dira, hitzarmenen bidez. Kopuruak Enplegu Zentro Berezi batek lanean duen langile ezgaitu bakoitzeko ematen dira.

Nafarroako herritarrek zergen bidez zentro berezior laguntzeko egiten duten ahaleginaren adi-

erazgarri, 2008an Nafarroako Gobernuak 9,5 milioi euroko dirulaguntzak eman zituen.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, egungo hizkuntza-tituluak Europako erreferentziako maila komunekin azkenean izanen duten homologatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Nekane Pérez Irazabal andreak galdera egin du egungo hizkuntza-tituluak Europako erreferentziako maila komunekin azkenean izanen duten homologatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 10eko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Parlamentariak aipatu dituen tituluak Hizkuntza Eskola Ofizialen (HEO) Oinarrizko Mailaren Egiatagiria eta Gaitasun Agiria direla ulerturik, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak (BOE, 07/01/04) xedatu duenez –eta martxoaren 19ko 22/2007 Foru Dekretuak jaso–, horien homologazioa, Europako Kontseiluak hizkuntzetarako Europako esparru komunaren baitan ezarri dituen mailetara egokitzeko, honakoa da:

Irakaskuntzako 967/1988 Errege Dekretua, irailaren 2koa	Irakaskuntzako 1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa
Oinarrizko Mailaren Egiatagiria	Tarteko Mailako Egiatagiria (B1)
Gaitasun Agiria*	Maila Aurreratuko Egiatagiria (B2)

Abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuak (BOE, 07/01/04), gainera, hizkuntzak irakasteko curriculumaren oinarrizko alderdiak xedatzen ditu. Oinarrizko arau hori da HEOen hizkuntza-mailak egokitzen dituen hizkuntzetarako Europako esparru komunaren mailetara:

Tarteko Maila, B1 mailaren baliokidea

Maila Aurreratua, B2 mailaren baliokidea

Neurri horrek orain arte lortutako agirietan duen eraginari dagokionez, 1629/2006 Errege Dekretuak xedatzen du Gaitasun Agiria, akademikoki, Maila Aurreratuaren baliokidea dela.

Alabaina, Departamentuak ez du atzeraeraginezko neurririk hartuko. Hau da, lanpostua edozein hizkuntzako Gaitasun Agiriaz lortu duen irakasleak ez du bestelako hizkuntza-egiatagiririk aurkeztu beharko.

HEOak (927/1988 Errege Dekretua, uztailaren 29koa)		HEOak (1629/2006 Errege Dekretua, abenduaren 29koa, LOE garatzekoa)		<i>Hizkuntzetarako Europako esparru komuna</i>	
Oinarrizko Maila (Egiaztagiria)	HEO 1	Oinarrizko maila 1	Oinarrizko maila (OM egiaztagiria)	Sarrera	A1
	HEO 2	Oinarrizko maila 2		Plataforma (waystage)	A2
	HEO 3	Tarteko maila	Tarteko maila (TM egiaztagiria)	Atalasea (threshold)	B1
Goi Maila (Gaitasun Agiria)	HEO 4	Maila aurreratua 1	Maila aurreratua (MA egiaztagiria)	Aurreratua (Vantage)	B2

Iruñean, 2009ko otsailaren 27ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas  
López de Goicoechea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuaren nahiz Nasuinsaren parte-hartzearekin garatutako industrialdeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2000tik 2008ra Nafarroako Gobernuaren edo Nasuinsaren parte-hartze oso edo partzialaz egin diren industrialdeei buruz (PES-024/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

2000tik 2008ra Nafarroako Gobernuak sustatutako industrialdeak

#### Castejóngo industrialdea, 1. fasea:

Azal. gordina: 350.000 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 286.297 m<sup>2</sup>

Erabilerak: industrialia eta ekipamendukoa, merkataritzakoa, hirugarren sektorekoa oro har.

#### Tuterako Montes del Cierzo industrialdea, 3. eta 4. faseak:

Azal. gordina: 350.000 m<sup>2</sup> (3 lurzati)

Lurzatien azal.: 304.920 m<sup>2</sup>

Industrialde honetan azalera handiko enpresak daude. Eskaria hain mugatua denez, hiritartzea lurzatien eskaerak jaso ahala egingen da.

#### Caparroso, 2. fasea:

Azal. gordina: 960.000 m<sup>2</sup>

Lurzatien azal.: 782.994 m<sup>2</sup>

Azalera handiko enpresetarako industrialdea. Erabilerak: industrialak eta hirugarren sektoreak.

Buñuel, hiritartzea bukatuaAzal. gordina: 645.000 m<sup>2</sup>Lurzati azal.: 458.380 m<sup>2</sup>

Erabilerak: industrialak eta hirugarren sektorekoak.

Azaleraren gaineko datuak industrialde osoari buruzkoak dira. Industrialdearen lehenengo fasea laurogeiko urteetan egin bazen ere, azalera osorako azpiegitura-lanak egin dira.

Viana, 1. eta 2. faseak:Azal. gordina: 540.000 m<sup>2</sup>Lurzati azal.: 390.061 m<sup>2</sup>

Erabilerak: industrialak eta hirugarren sektorekoak.

Erabilera baimenduei dagokienez, onartutako planeamenduan jarduketa guztietarako xedatu den erabilera orokorra "industrial" da, erabilera anitzeko lurzatietan (azaleraren %4 gutxienez) izan ezik; azken horietan, erabilera hirugarren sektorekoa da, industrialdearen premiei aurre egiteko.

Era berean, Nasuinsak sustatutako industrialdeen zerrenda gehitu dugu.

Iruñean, 2009ko otsailaren 25ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00024 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## Galdera, Ostizko saihebideari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du Ostizko saihebideari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José M.<sup>a</sup> Vázquez Royo jaunak galdera egin du Ostizko saihebidetako lanen parean N-121-A errepideak duen arriskuari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

• Galderaren oinarrian dauden istripuak gertatu ziren lekuan, N-121-A errepideko Enderizko elkar-gunean, behin-behineko desbideratze bat egin zen, hain zuzen ere Ostizko saihebidetako lanak zirela-eta; desbideratzea 2008ko irailaren 25ean zabaldu zen, zegokion administrazio-izapidea betez:

– Plangintza

– Ohartarazpena

– Desbideratzea zabaltzea

• Hasiera-hasieratik, desbideratzea seinalez-tatu zen 8.3.I.C. "Balizak eta lanen babesa seinalez-tatzea" jarraibidea betez:

– Lanak horiz seinalez-tatzea

– Tarte osoan abiadura orduko 40 km-ra mugatzea

– 3 fresaketa-zerrenda galtzadan

– Seinalez-tapen bertikala, bihurtuneak eta kontrako bihurtuneak adieraziz

– Norabide-panelak

– Obra-gune bat dela gogorazteko seinaleak

– Argibide-taula: "Erne, Behin-behineko Desbideratzea"

• Erregistratutako istripuetan (Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ARENA datuak), kasu gehienetan ageri den faktorea honakoa da: "GEHIEGIZKO ABIADURA"

• Obraren arduradunekin eta trafikoko poliziaekin etengabeko harremana izan dugu.

• Istripuak ohikoak zirela jakitean, seinalez-tapen guztia indartu zen.

Lehendabiziko aldiz:

- Seinale horizontalak berriz pintatu ziren.
- Abiadura orduko 40 km-ra mugaturik zegoela adierazten zuen beste seinale bat paratu zen.
- Galtzadan beheragune gehiago paratu ziren.
- Norabide-panel gehiago paratu ziren.
- Obra-gune bat zela-eta abiadura mugaturik zegoela gogorazteko seinale gehiago paratu ziren.
- Baliza argidunak paratu ziren.

Bigarren aldiz:

- Orga argidunak paratu ziren, adi, bidean lanak seinalatuz.
- Ingurua argiztatu zen (finkoa eta ondoz ondo-ko seinale argidunez).
- Norabide-panel gehiago paratu ziren.
- Gure ustez, istripuak gertatu ziren orduko 40 km-ko abiadura-muga, behin eta berriro seinalez-

tatua, ez errespetatzeagatik. Gogora dezagun egunean 10.500 ibilgailu inguru igarotzen direla gune horretatik, eta horietatik ia 2.000 kamioiak direla. Egoera puntual batean, hidrokarburoak ego-teagatik edo beste edozein arrazoiengatik galtzadak behar bezalako itsaspena izan ez balu, ibilgailu gehiagok irrist eginen zuketen, zirkulazio handiko guneetan hidrokarburoen isuriak daude-nean gertatu ohi den moduan.

- Gaur egun, Ostizko saihezbidea martxan dago eta behin-behineko desbideratzea ezabatu da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 2an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik aldatu duen Nafarroako Gobernuak eremu euskalduneko bide xafla elebidunetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpidea.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du eremu euskalduneko errepide-seinaleetan hizkuntza ofizialak paratzeko baliatu den irizpideari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 25eko Ebazpenak jarraibide bat onartu zuen Nafarroako Errepide Sarean, seinaleztapenari dagokionez, errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz paratzeko moduz.

Ebazpenak honakoa xedatzen du b) eta d) puntuetan:

“c) Toponimoak eta lurralde, biztanleria-gune eta hiriarteko bideen izenak, horien izendapen ofiziala elebiduna –gaztelaniaz eta euskaraz– denean, honela erabiliko dira:

– Gaztelaniaz eta euskaraz eremu euskalduneko errepide-tarteetan.

– Gaztelaniaz eta euskaraz eremu mistoko errepide-tarteetan.

– Gaztelaniaz eremu ez-euskalduneko errepide-tarteetan.

d) Nafarroako Errepide Sareko gainerako seinaleztapen-elementu eta -testuak seinale finkoetan eta seinaleztapen aldagarriko paneletan paratuko dira, irizpide hauei jarraiki:

– Euskaraz eta gaztelaniaz eremu euskalduneko errepide-tarteetan.

– Gaztelaniaz eremu misto eta ez-euskalduneko errepide-tarteetan.

Edonola ere, piktograma normalizatuen erabilera lehenetsiko da”.

Ebazpena zorrotz aplikatzen da seinaleztapeneko proiektu guztietan, eta, zehazki, galderan aipatzen direnetan, alegia, seinaleztapen turistikoan. Alabaina, Gobernuaren Ebazpenak ez du arautzen, bi hizkuntzak paratu behar diren karteletan, zeinek joan behar duen lehenik (goiko aldean). Aipatu Gobernuaren Ebazpena eman zenetik aurrera egin diren proiektuetan, irizpide gisa hartu da lehendabizi gaztelania jartzea. Ebazpena eman aurretik zeuden karteletan, bi aukeren adibideak badira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko otsailaren 26an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren menpe herritarrei emandako zerbitzuen egiturari eta antolamenduari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 6an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du herritarrei eskainitako zerbitzuen egituraketa eta antolaketari buruz (PES-022). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Azaroaren 3ko 118/2007 Foru Dekretuari jarraiki, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko administrazio-unitate guztiek, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoak izan ezik, herritarrei zerbitzuak eskaintzen dizkiete, oso bestelako mailetan bada ere, aipatu Foru Dekretuak bakoitzari esleitzen dizkion eskumenen arabera.

Funtzionarioek edo Departamentuari atxikitako langile kontratudunek eskaintzen dituzte aipatu erbitzuak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baitako Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoari dagokionez, irailaren 3ko 119/2007 Foru Dekretuak, Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoaren estatutuak onartu zituena, honela definitzen du erakundea, Xedapen Orokorren I. Tituluko 3. artikuluan: "Nafarroako Foru Komunitatearen izenean eta hura ordezkatzuz, Nafarroako Ogasun Publikoaren zerga-sistema aplikatzearen ardura duen erakunde administratiboa"; haren helburua da "zergak behar bezala eta eraginkorki kudeatu eta biltzea, guztiek zerga-araudia zorrotz bete dezaten, betiere zergadunaren segurtasun juridikoa errespetatuz". Horretarako, elementu pertsonal, material eta tekniko guztiak behar bezala koordinatuko ditu.

Arauk xedatzen duenez, helburu hori betetzeko orduan ahaleginak eginen dira aipatu araudiak

sortzen duen zeharkako zerga-presioa ahalik eta txikiena izan dadin. Horrenbestez, Nafarroako herritarri ahal den neurrian erraztuko zaio zerga-arauek ezartzen dizkion zerga-betebeharrak betetzea. Helburu hori, aurrez aipatu helburu nagusiarikiko bigarren mailakoa izanik ere, oso garrantzitsua da. Hortaz, Nafarroako Zerga Ogasunak bere egituraren zati handi bat engaiatu du asmo horretan. Hala, zuzenean zuzendari kudeatzailearen mende dagoen Zergadunarekiko Harremanetarako eta Zerbitzuak emateko Zuzendaritzaren helburu nagusia da zergadunaz arduratzeko eta hari zerbitzuak eskaintzeko alorraren plangintza integrala egitea. Zergadunaz arduratzea eta haiei zerbitzuak ematea Zuzendaritza hori osatzen duten hiru Zerbitzuen bidez egiten da:

Errenta eta Ondare Kanpainarako Zerbitzua  
Zergadunari Laguntzak eta  
Argibidea emateko Zerbitzua  
Lurralde Aberastasuneko Zerbitzua

#### *Errenta eta Ondare Kanpainarako Zerbitzua*

Zerbitzuaren funtzio nagusia Errenta eta Ondare Kanpaina zuzendu eta koordinatzea da, zerga horien aitortzen prestatu edo egiteko laguntza-zerbitzua eskainiz. Laguntza aipatu Zerbitzuari atxikitako langileek zuzenean ematen dute, eta, gaingiroki, honetan datza:

– Autoliquidazio-proposamenak edo aitortzen zirriborroak bidaltzea Nafarroako zergadunen etxeetara, haiek onartu edo bazter ditzaten. 2008an 160.000 proposamen baino gehiago bidali ziren, eta %85 inguru onartuak izan dira.

– Errenta eta Ondarearen aitortzen prestatzen edo egiten laguntzea horretarako Zerga Ogasunak Iruñean, Burlatan, Barañainen, Tuteran, Tafallan eta Lizarran dituen bulegoetara joaten diren pertsonei.

– Aipatu aitortzen egitean Nafarroako herritarrei sortzen zaizkien zalantzei erantzutea, eta baita Zerga Ogasunarekin elkarlanean aritzen diren entitateetako langileei aitortzen egiteko laguntza-zerbitzua eskaintzean sortzen zaizkien ere.

#### *Zergadunari Laguntzak eta Argibidea emateko Zerbitzua*

Zerbitzu horren helburu nagusia da zergadunari laguntza eta informazio egokiak eskaintzea

haren zerga-betebeharretan, bai aurrez aurre, bai telefonoz, bai baliabide elektronikoen bidez.

Nafarroako Zerga Ogasunak dituen bulegoetara –Iruñeko Abejeras kalean, Tuteran, Tafallan eta Lizarran kokatuak– bertaratzen diren Nafarroako herritarrei ematen zaizkien laguntza eta informazioa Zerbitzuko langileek zuzenean eskaintzen dute, eta baita baliabide elektronikoen eta informatikoen bidez eskaintzen dena ere.

Zergei buruzko telefono-zerbitzua ez dute langileek zuzenean eskaintzen, eta Trabajos Catastrales, S.A. sozietate publikoaren kargu uzten da lan hori; 2009rako mandatu hori Nafarroako Ogasun Publikoaren zuzendari kudeatzailearen abenduaren 31ko 1394/2008 Ebazpenaz onartu zen.

Enpresa publiko horrek aitortua du Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentala-

ren izaera, betiere bere xede sozialaren baitan, Nafarroako Gobernuaren 2007ko uztailaren 2ko Ebazpena medio.

Egindako galderari erantzunez, Trabajos Catastrales, S.A.ri telefono-zerbitzua eskaintzeko mandatuaren kopia gehitu dugu.

#### *Lurralde Aberastasuneko Zerbitzua*

Lurralde Aberastasunaren Erregistroko informazioa jasotzen duten dokumentu eta egiaztagiriak, bereziki Lurzatiketa Zedula, entregatzeko zerbitzua ematen du. Zeregin hori Zerbitzuko langileek zuzenean egiten dute.

Iruñean, 2009ko martxoaren 3an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

## **Galdera, Nafarroan ekoiztiko produktuak AEBetara esportatzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroan ekoiztiko produktuak AEBetara esportatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako produktuen esportazioen kopuruari eta horri dagokionez 1990etik izan den bilakaerari buruz (PES-45). Eskatutako datuak taula honetan jaso dira:

Iruñean, 2009ko martxoaren 6an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

<b>esportazioak AEBetara</b>	
Urtea	Kopurua (milioika eurotan)
1990	64,35
1991	52,62
1992	56,22
1993	53,90
1994	77,24
1995	98,46
1996	97,57
1997	119,24
1998	113,65
1999	120,95
2000	113,29
2001	121,49
2002	136,15
2003	170,85
2004	137,03
2005	206,87
2006	385,67
2007	313,51
2008	504,80

**Iturria:** Nafarroako Estatistika Institutua, Zerga Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuak emandako mikrodatuetan oinarriturik.

## **Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 9ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sodenaren eta Acciona, S.A. ren arteko akzioen salerosketari buruz (PES-027/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1.- 2004ko urriaren 29an zergatik sinatu ziren bi kontratu, bakarra sinatu beharrean? Bi kontratu egin ziren notarioari ezkutatzeko akzioen salerosketako eskrituran Akordio Osagarri bat zegoela, eta hura erregistro publikoan –hala nola Merkataritza Erregistroan– ez erregistratzeko edo Balore Merkaturen Batzorde Nazionalari ez jakinarazteko?

Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A. (EHN) enpresaren akzioak Sodenaren eta Acciona, S.A. ren artean salerosteko akordioa bi dokumenturen bidez gauzatu zen, biak ala biak 2004ko urriaren 29koak:

– Lehenengoan –Akzioak salerosteko kontratua–, Sodenak bere jabetzako EHNren 11.414.149 akzio saldu zizkion Acciona, S.A.ri.

– Bigarregoa Akordio Osagarria da, zehazki Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A. eta TME 2001 Corpcan, S.L. enpresen jabetzakoak diren Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra, S.A. merkataritza-konpainiaren kapital sozialeko



akzioak salerosteko kontratuena, eta horiek erosteko zein saltzeko aukeraren gaineko kontratuena. Dokumentu horretan zenbait akordio ezarri ziren, bi operaziori eragiten ziotenak: alde batetik, Sodenaren eta Acciona, S.A.aren artean sinatutako akzioen salerosketari, eta, bestetik, TME 2001 Corpcan, S.L. eta Acciona, S.A.aren artean sinatutako erosteko aukera eta saltzeko aukera xedatzeko operazioari.

Aipatu Akordio Osagarria honela justifikatzen zen:

– Lehenik eta behin, ikuspegi formaletik; azaldu dugun moduan, akordioan jaso ziren erosleak –Acciona, S.A.– saltzaile bakoitzarekin sinatutako bi operazioetan –horiek, era berean, elkarrekiko ezberdinak ziren– komunak ziren xedapenak.

– Bigarrenik, edukiaren ikuspegitik; izan ere, dokumentu horretan xedapen osagarriak jaso dira, hainbat alderdiri eragiten diotenak: salerosketako eta erosi zein saltzeko aukera xedatzeko kontratuen eraginkortasunari eta baldintza etengarrien betekizunari; alderdi bakoitzak, saltzaileak eta erosleak, eskrituran idatzita jasoko lituzkeen adierazpenei, eta, operazio horietan ohikoa denez, alderdientzat interesgarriak izaki dokumentu bereizitan jaso nahi diren beste kontu batzuei (bermeak, prezio osagarria eta abar).

Beraz, ez dago, inola ere, ezer ezkutatzeko asmorik, eta akzioak salerosteko eskritura ez dago Merkataritza Erregistroan jasotzerik. Bestalde, Acciona, S.A. da, sozietate kotizatu moduan, CNMVren kontrolpean zegoena, eta hari zegokiokeen, halakorik behar izanez gero, EHNren akzioen salerosketa jakinaraztea, aplikagarria den araudiari jarraiki.

2.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak Akordio Osagarriaren 10. klausula, EHNren salerosketa 34 entitatearekin negoziatu bazen, isilpean eta Nafarroako Parlamentua jakinaren gainean egon gabe?

Jada azaldu ditugun 2004ko urriaren 29ko operazioen isilpekotasuna Akordio Osagarriaren 10. xedapenak ezartzen du.

Sodenak bere jabetzeko EHNren akzioen salmenta soilik negoziatu zuen beste bazkidea zen Acciona, S.A.rekin, eta azken horrek lehentasunezko erosteta-eskubidea zuen, konpainiaren estatutuen arabera.

Ez da egia, beraz, erantzuten ari naizen galderan adierazten dena, alegia, data horretan Sodenak 34 entitatearekin negoziatu zuenik, eta are gutxiago isilpean eta Parlamentua jakinaren gainean egon gabe egin zuenik.

Egia esan, EHN bera izan zen, enpresa pribatu gisa, 2003. urtean prozesu batik ekin ziona, zeinaren ondorioz EHN, S.A.aren %50 Acciona, S.A.ri saldua izan baitzen.

3.- Nola bermatu du Nafarroako Gobernuak Akzioak Salerosteko Kontratuaren orotariko klausula, azken tokian atzera botatako hautagaiari (azkenik bigarrena geratu zenari) dagokionean?

Aurretik esandakoaz, galderari jada erantzun diogula uste dugu; alegia, nahasketa egon dela datetan eta operazioetan.

4.- Iberdrola, S.A.aren akzioen salerosketari buruzko auditoria egiteko, igorri al zaio Nafarroako Comptos Ganberari Sodenak partaidetza duen Corporación Energía Hidroeléctrica de Navarra S.A.aren akzioak besterentzeko espedienteari buruzko dokumentazio guztia, eta zehazki gonbidatutako 34 entitateen dokumentazioa?

Comptos Ganberaren auditoriak eskura izan zuen Sodenak Iberdrola, S.A.aren akzioak erosteko operazioari buruzko dokumentazio guztia.

Iruñean, 2009ko martxoaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sodenaren eta Accionaren arteko akzio-salerosketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Sodena eta Acciona, S.A.ren arteko akzioen salerosketaren inguruko hainbat alderdiri buruz (PES-046/09). Hona hemen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Horri jada erantzun diogu PES-27/09 galderan (ikus 16. or.).

Iruñean, 2009ko martxoaren 6an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:  
José María Roig Aldasoro

## **Galdera, jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko ea 2009ko aurrekontuan kontusailen bat dagoen Iruñeko ospitaleetara etorri behar dutenen joan-etorriak ordaintzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 20ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra–Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras

Castellano andreak galdera egin du jakiteko 2009ko ekitaldirako aurrekontu-lerrorik dagoen aintzat hartuko dituen Iruñetik kanpo bizi eta Iruñeko ospitaleetara joaten diren pertsonen joan-etorrietarako gastuak (PES-051/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

2009ko aurrekontuan jarraian doan kontusaila sartu da, Gurutze Gorriaren eskutik pazienteen ospitale arteko garraioa antolatzen.

511002-51120-4819-313905 (\*\*) Hitzarmena Gurutze Gorriarekin, pazienteen ospitale arteko garraiorako: 300.000 €.

Hori jakinarazten dizut, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 5ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako Gobernuak Baztan Ikastolari 2008ko aurrekontu-ekitaldian, kontzeptu guztiengatik, emandako diruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko martxoaren 6ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

2008ko ekitaldian, Hezkuntza Departamentuak 559.592,59 euro ordaindu dizkio, guztira, Baztan Ikastolari, azalpen hauengatik:

1. Eskolaz kanpoko jarduerak: 585,23 euro

2. Ikastetxe itunduetarako dirulaguntza: 5.772,24 euro

3. Ikastetxe itunduen beste gastu batzuk: 545.316,32 euro

4. 2007/08 ikasterterako Liburu Beken Ordainketa: 3.543 euro

5. Testuliburuaren doakotasun-programa: 3.990 euro

6. Ikastetxe itunduetarako dirulaguntzaren konpentsazioa: 385,8 euro (2007ko 6. bihilekoa)

6. atalekoa 2008an egindako ordainketa bat da, baina 2007an gauzatutako gastu bati dagokio. Atal hori gabe, 2008ko kopurua 559.206,79 euro da.

Iruñean, 2009ko martxoaren 10ean

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Uharteko Udalak Arte Garaikidearen Zentroa dela-eta izandako bilerei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 20ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren inguruan Gobernuak Udalarekin izandako bilerei

eta horietan jorratutako gaiei, ateratako ondorioei eta Departamentuak Zentro horretan duen partaidetzari buruz. Hona hemen Vianako Printzea Era-kundea – Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Uharteko Zentroa 2007ko urriaren 26an inauguratu zen. 2007ko urriaren 29an, Nafarroa Baiko foru parlamentari Patxi Telletxeak bertara bisita egitea eskatu zion Parlamentuko Batzordeari. Bisita hori urriaren 30ean egin zen, eta orduan Uharteko alkateak onartu zuen Udalak zailtasunak zitu-ela zentroaren kargu egiteko. Telletxea jaunak Gobernuari eskatu zion haren kargu egin zedila.

Beraz, atek zabaldu eta hilabete eskasera, zentroaren ardura duen Udalak adierazi zuen hura mantentzeko gauza ez zela.

Gobernuak, aipatu parlamentarien bisitan horren berri izan zuen une berean, laguntzeko konpromisoa hartu zuen (martxan jarri baino lehenagotik ere laguntza ematen ari zen), zentroa itxia izan ez zedin.

Orduz geroztik, Gobernua askotan elkartu da Uharteko Udalarekin, hilean behin gutxi gorabehera. Lan-bilera tekniko zein politiko horietan, aterabidea aurkitzeko hainbat proposamen aztertu dira; azkenik, Uharteko Udalarentzat egokia den bat topatu dugu, eta hori izan da behin betikoa.

Gobernua aurreiritzirik gabe eta Uharteko Zentroaren arazo larria konpontzen laguntzeko borondate garbiaz joan da bilera guzti-guztietara. Edo-nola ere, negoziazioan baziren bi printzipio kosta ahala kosta mantendu beharrekoak:

– Zentroa ez zedila, Uharteko Udalak mehatxatu moduan, itxia izan.

– Zentroko lantaldearen postuak, hura itxiz gero desagertuko zirenak, mantentzea.

Jarraian, bilera garrantzitsuenak aipatuko ditugu:

2008ko urtarrilaren 17ko bilera. Foru Komunitatearen Administrazioak zentroa bere gain hartzeko alternatibak aztertzeari ekitea erabaki zen.

Urtarrilaren 18an, erabaki zen zein alderdi ziren aintzat hartu beharrekoak eta zein dokumentazio aurkeztu behar zen, Departamentuak horien inguruan hausnartu eta proposamen bat egin zezan. Dokumentazioa 2008an zehar aurkeztu zen.

2008ko apirilaren 11n, Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren Fundazioari buruzko zenbait auzi juridiko eta ekonomiko jorratu ziren.

Ondoz ondoko hiru bileratan, Gobernuaren eta Udalaren proposamen bana aztertu zen, baina ez zen akordiorik lortu; aipatu bilerak 2008ko ekainaren 11n, 17an eta 24an egin ziren.

Proposamen horien inguruan hausnarketarako tarte bat zabaldu eta aipatu bi erakundeetako teknikarien artean zenbait bilera egin ostean, udan

bilera formalak egiteari ekin zitzaion ostera, proposamen berriak paratuta.

2008ko irailaren 4an, zentroa alokatzeko kanon bat ezartzea proposatu zuen Uharteko Udalak.

Azaroan eta abenduan hainbat bilera egin ziren ikuspegiak gerturatzeko, eta, 2009ko urtarrilaren 29an, Udalak bi alternatiba proposatu zituen:

– Fundazioari kostu ekonomikorik ekarriko liokeen jarduera guztiak bertan behar uztea; alegia, arte-jarduerari dagokionez zentroa ixtea.

– Zentro osoaren erantzukizuna besteri lagatzea, estatutu berriak idatziz eta Patronatua berri bat eratuz; Patronatuak Nafarroako Gobernuaren esku utziko lituzke zentroaren kudeaketa eta finantzaketa.

Proposamenaren inguruan egunero harremanak izan eta bilerak egin ondoren, bi alderdiek onartutako akordio bat erdietsi zen, eta hura, era berean, Udalak onartu zuen, 2009ko otsailaren 11n.

Egun horretan berean itxi zen negoziazioa, jarraian gehitu dugun asmoen protokoloa sinaturik.

Protokoloan jaso da Departamentuak Arte Garaikideko Zentroan duen partaidetza. Halaber, Gobernua Fundazioan sartu dela adierazten da, eta Gobernua bera eginen dela, osoki, Zentroaren finantzaketaren kargu. Udala ere Fundazioko kide da, eta doan lagako dio Gobernuari eraikin osoaren erabilera. Kudeaketari dagokionez, Uharteko Udalak kitatu egin du Coff Fundazioarekin zuen konpromisoa, eta Nafarroako Gobernuak zentroko langile guztien postuak mantenduko ditu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00049 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Irunberriko Udal Planaren aldaketari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 20ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Irunberriko Udal Planaren Aldaketari lotutako hainbat auziri buruz. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 2008ko azaroaren 3ko Erabakiaz ezetsi zuen Urraulbeitiko Udalak egin-

dako eskaera, galdera egin baino zenbait hilabete-ko lehenago.

Aipatu Gobernu Erabakian azaltzen denez, Udal Plana aldatzeko espedientean –agiri honi gehitu dioguna– ez dago irregulartasunik.

Azken hiru galderek inolako zerikusirik ez dute aztergai izan dugun hirigintza-aldaketarekin, eta, edukiari erreparatuta, erantzuna ezezkoa izanen da.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: José Carlos Esparza Sáez

Oharra: aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00047 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

## **Galdera, jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du jakiteko ea Foruzaingoaren zer esperientzian eta Auzitegi Goreneko zer epaitan oinarrituta ezarri duen Lehendakaritza Departamentuak zazpi marihuana landare izateak ezartzen duela administrazio arau-haustearen eta delituaren arteko muga.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 17ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du marihuana-landareen kopuru jakin bat edukitzearen tipifikazio penal eta administratiboari buruz (PES-044). Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Hasteko, adierazi behar da Foruzaingoak ustezko osasunaren aurkako delitua (droga-trafikoa) eta legez kontrako substantziak edukitze hutsaren arau-hauste administratiboa bereizten dituela doktrina- eta jurisprudenzia-irizpideak aintzat hartuz, eta irizpide horien argitan xedatzen dira bai poliziaren jarduketa-esparrua bai kasu bakoitzaren trataera.

Horri dagokionez, eta ezaguna den moduan, Zuzenbide Penaleko eskuliburuek (esate baterako, Aranzadi argitaletxearena) honakoa diote: "Atxikita-kopuruari dagokionez, Auzitegi Gorenak, Toxikologiako Institutu Nazionalari jarraiki, dosi finko batzuk ezarri ditu, atzemandako kopurua norberaren kontsumorako edo droga-trafikorako den ebazte aldera".

Toxikologiako Institutu Nazionalak, 2001eko urriaren 19ko txostenean, 15 eta 20 gramo artean ezarri zuen marihuanaren eguneroko batez besteko kontsumoa. Auzitegi Gorenak behin baino gehiagotan xedatu duenez, kontuan izan behar bada droga toxikoen trafikora bideratutako kopurutzat jotzen dela norberaren kontsumorako bost egunerako behar dena gainditzen duena (haxixarekin izan ezik; kasu horretan, hamar eguneko kontsumorako behar dena litzateke), agintaritzaren agenteak erabaki behar duenean drogaren edukitza ustezko trafiko-delitua edo arau-hauste administratiboa den, muga 200 gramotan dago.

Kopuru horiek kalkulatu behar dira printzipio aktiboaren –tetrahidrocannabinol (THC)– kontzentrazioa handiagoa edo txikiagoa den kontuan izan gabe, tartean prozesu kimikorik ez baitago. Zentzu horretan, Auzitegi Gorenak zenbait erabaki eman ditu –jarraian laburbildurik jasoak– adieraziz cannabis substantzian dagoen droga-kopurua ebazteko orduan purutasun-mailak inolako garrantzirik ez duela, eta atzeman den kontsumorako substantziaren gutzizko pisuari erreparatu behar zaiola:

– Auzitegi Gorenaren 1996ko otsailaren 13ko Epaia: "Marihuana haxixaren antzeko substantzia da, landare-jatorri berekoa: «cannabis sativa», eskuarki indiar aldaerakoa; egia da printzipio aktiboaren kontzentrazio txikiagoa duela, baina hala ere haxixaren leku berean paratu ohi da osasun-, zuzenbide- edo prebentzio-sailkapenetan. 1993ko irailaren 17ko Epaia dioen moduan, marihuanak garrantzia hartzen du, berriazko larrigarria aplikatzeari dagokionez, pisua bost kilogramotik gorakoa denean.

Egokia izan daiteke marihuana haxixarekin alderatzea; izan ere, bi haluzinogenoak jatorri bera dute eta osasunerako larriki ez-kaltegarri moduan sailkatu daude. Indiar kalamuaren deribatuak, heroina eta kokaina ez bezala, produktu begetalak dira, landaretik ateratzen direnak inolako prozesu kimikorik egin gabe. Drogaren substantzia aktiboa tetrahidrocannabinola (THC) da, hau da, cannabina. Kontzentrazio-mailari dagokionez, gehien duenetik gutxien duenera, produktu hauek daude: haxix-olioa, haxixa, grifa eta, azkenik, marihuana; edonola ere, Nazioarteko Hitzarmenen Zerrendan

substantzia haluzinagarri gisa ageri da marihuana, osasunerako larriki ez-kaltegarri gisa bada ere.

Alabaina, jada aipatu %40a kenduta, pisua bost kilo pasan geratu zen, eta datu hori ez da inola ere nahikoa nabaritasun-mailara heltzeko; izan ere, Kasazio Auzitegiari zalantza oinarritunak sortzen zaizkio atzemandako kopuru zehatzaren inguruan. Kontua ez da printzipio aktiboaren kontzentrazioa ezagutzea. Kontua da haluzinogenoaren egiazko pisua ezagutzea, aintzat hartuz lehen batean produktu horrekin nahasian egon ziren osagaiak."

– Auzitegi Gorenaren 2000ko azaroaren 6ko Epaia: "Auzitegi honen doktrina konstantea eta beti-batekoa da irizpide honetan: haxixaz ari garelarik, inolako garrantzirik gabea da drogaren purutasuna xedatzea, hala haxixa nola grifa eta marihuana produktu begetalak direlako, egoera naturalean ageri direnak. Substantzia aktiboa landarean berean txertaturik dago, eta haren proportzioa handiagoa edo txikiagoa izatea laborearen kalitateak, jatorrizko nekazaritza-eremuak eta beste aldagai natural batzuek baldintzatzen dute; beraz, produktuaren sortzetiko konposizioa ezin da aldatu, eta substantzia aktiboa den tetrahidrocannabinolaren proportzioa %2 eta %10 bitartekoa da, aipatu aldagaien arabera. Horregatik, Auzitegi Gorenaren 1995eko azaroaren 6ko Epaian jada adierazten zenez, purutasun-egoerara prozedura kimikoen bidez heltzen diren kokaina eta heroinaren kasuan ez bezala, indiar kalamuaren deribatuak landaretik beretik, inolako prozesu kimikorik gabe, lortzen diren produktu begetalak dira, eta beraz THC substantzia aktiboa ez da inoiz eta erabat landareetan edo deribatuetan purutasun-egoeran ageri. Horregatik, 369.3 artikuluko berriazko larrigarria baloratzeko orduan, Auzitegi honek ez du aintzat hartzen kalamuaren deribatu bakoitzak (haxixa, marihuana, grifa, olio) duen substantzia aktiboa, baizik eta substantziaren pisu gordina, haren kontzentrazio-maila edozein izanik ere. Horregatik, eta kontuan hartuz tetrahidrocannabinolaren kontzentrazioa ezberdina dela grifa, marihuana, haxixa edo olio izan –produktu horietan, hurrenkera gutxien duenetik gehien duenerakoa da–, jurisprudenziak gutxieneko muga ezarri du, pisuaren arabera, eta handik gora kopurua nabariki garrantzitsutzat joko da: kilogramo bat haxixaren aldaerarik arruntenerako, bost aldiz gehiago grifarako edo marihuanarako, eta bost aldiz gutxiago oliorako (Auzitegi Gorenaren epaiak: 1994ko maiatzaren 25ekoa eta ekainaren 1ekoa, 1995eko abenduaren 29koa, 1996ko azaroaren 12koa eta martxoaren 1ekoa, 1997ko otsailaren 13koa eta 17koa, eta azaroaren 20koa, 1998ko urtarrilaren 24koa eta urriaren 15ekoa...).

Alabaina, cannabis landare bakar batek zenbat marihuana eman dezakeen galdetuta, erantzuna litzateke hori hainbat faktoreren mende dagoela, hala nola landarearen espeziea, labore-eremua, sail bakoitzaren berariazko garapena eta lehorketa. Horren harira, esan liteke, hurbilketa gisa, landare-mota horretako hazien hornitzaileek publizitatea egiten dutela adieraziz landareek batez beste azken substantziaren 250 eta 350 gramo arteko errendimendua ematen dutela. Publizitate hori hitzez hitz eta bakarka hartu eta Toxikologiako Institutu Nazionalak xedatutako batez besteko eguneroko kontsumoarekin (100 eta 200 gramo bitarte) parekatuz gero, ondoriozta liteke indar betean dagoen landare bakar batek trafikotzat eta, beraz, delitutzat hartua izateko behar dena baino kopuru handiagoa ematen duela.

Hala ere, polizien jokabide-ikerketan bestelakoak dira aintzat hartu beharreko irizpide eta adierazleak. Segurtasun-indarrek zantzu-froga baliatzen dute irizpide gisa. Izan ere, polizia-ekintza abiatu baino justu lehenago ez da ohikoa landareak atzemateko eta haien espeziea, tamaina, helitze-egoera, pisua eta abar ezagutzeko aukera izatea, eta horregatik, huts egiteko aukera ezabatzearen, muga logikoak ezarri behar dira. Hau da, hazien hornitzaileen esanari jarraituz gero posible bada ere landare batetik legez kontrako substantzia baten 200 gramo ateratzea, parametro orokor hori ezin da zuzenean aplikatu, "gehienezko ahalmen" hori eman dadin hainbat faktorek bat egin behar dutelako. Beraz, auzia arau-hauste administratiboa edo delitu penala den ebazte aldera, landare bat baino gehiago izanen da gutxieneko kopurua.

Gainera, badira beste zantzu batzuk jarduneko poliziak aintzat hartu beharrekoak, haren prestakuntza teorikoa eta gertakarien interpretazioa oinarri harturik: substantzien bilgarriak, substantziak saltzeko materiala edukitzea, droga-salerosketa txikitik sortu bide den diru xehea edukitzea eta abar. Dena den, kasu guztietan ez da beharrezkoa zantzu ugari egotea droga-trafikoaren delitua egon bide dela ebazteko. Batzuetan, substantzia edukitze hutsa nahikoa izan daiteke osasun publikoaren aurkako ustezko delitu bat egon dela ebazteko, Auzitegi Gorenaren 2001eko urriaren 29ko eta 2004ko urriaren 9ko epaietan adierazi moduan

("indar frogagarri handiko zantzu bakar bat" aipatzen da horietan).

Bestalde, auzia delitua edo arau-hauste administratiboa den erabakitzeko orduan, segurtasun juridikoa bermatze aldera ezarritako adierazle eta parametroei erreparatuz, nabarmendu behar da irizpide horiek gutxieneko nahiz gehieneko kopuruetarako aintzat hartzen direla. Puntu hori argitu eta dokumentu bidez azaltzeko, Valentziako Probintzia Auzitegiaren 1997ko abenduaren 11ko epaia aipa liteke. Epaian adierazten da hiru marihuana-landare edukitzea ezin dela delitu penala dakarren jokabidetzat jo, baina epai berean agintzen da "lekukotza Gobernu Ordezkaritzara igorria izan dadila, dagokion zehapen-espeditentea abian jar dadin akusatuaren aurka, Herritarren Segurtasuna Babesteari buruzko otsailaren 21eko Lege Organikoaren 25.1 artikulua kontsumo eta edukitze horiek zigortzen dituelako".

Azkenik, galderan, tarteki moduan, Foruzaingoak jarduketa-esparru horretan duen eskarmentuaz aipatzen denari buruz, adierazi behar da kalamuaren autohazkuntza dela eta Osasunaren aurkako Delituen Brigadak egin eta epaitutako egozpen guztiek, denak ere zazpi landare edo gehiago edukitzeagatik, zigorrak ekarri dituztela, Nafarroan finkatutako epaitegi eta auzitegiek emanak.

Adibide gisa, eta berriena aipatzearen, nabarmentzekoa da 2008ko abenduaren 16ko 404/2007 Epaia, Iruñeko Zigor Arloko 1. Epaitegiak emana 830/07 Prozedura Laburtuaz; epaiaren ondorioz, inputatua, Foruzaingoak 2006ko irailaren 5ean atxilotua kalamua landatzeagatik, urtebeteko presoaldira eta 900 euro ordaintzera zigortua izan da. Zehazki, atxilotua auzipetua izan zen zazpi landare edukitzearen zantzupean; atzemanak izan zirenean, landareek 3.880 gramoko pisua eman zuten, eta, lehorketa-prozesuaren ondoren, substantziaren 660 gramo atera ziren.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 9an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## Galdera, Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepedeko obretan eragindako kalteei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Bidasoa ibaiaren hazierak N-121-A errepedeko obretan eragindako kalteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du otsailean Bidasoa ibaian izandako uholdeek N-121-A errepedean eragin zituzten kalteei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1) Joandako udazken eta neguko plubiometria ohiz kanpoko izan da, ez prezipitazio puntualetan baina bai egun askotan euria etengabe egin duelako. Horrek ohiko lurketa-lanak egitea eragotzi du, eta Bidasoa ibaiaren goraldiek egituretan egin beharreko lanak baldintzatu dituzte.

Joan den otsailaren 11n, egoera larriagotu egin zen egun osoz euri-jasa izugarriak bota zituelako; ondorioz, 17:00etan urak gainezka egin zuen Bidasoa ibaiaren zenbait gunetan.

Jarraian, urak eragindako kalteak azalduko dira, tartez tarte:

Tartea: 65 KP, Sunbilla–Etxalar.

- E 1-1 gauzatzeko egin zen behin-behineko penintsula eraman zuen urak (1. argazkia).

- Lurketak erabat gelditu ziren, lurraren saturazioagatik (2. argazkia).
- E 1-7ko 1. pilarearen zapata urak hartu zuen (3. argazkia).
- Lur-jausia N-121-A errepedean, E-6ren ondorian (4. argazkia).
- E 1-6ko pilarearen enkofratua urak hartu eta eraman zuen (5. argazkia).

Tartea: Etxalar–Bera

- E 2-3ko harri-lubeta urak hartu zuen (6. argazkia).
- E 2-8ren horma-bularra urak hartu zuen (7. argazkia).
- Lurketak erabat gelditu ziren (8. eta 9. argazkiak).
- Urak ezponda lerrarazi zuen eta Bera hornitzen duen hodi bat, obrek ukitu gabea, eraman zuen (10. argazkia).

2) Hilaren 11 eta 12ko uholdeak direla-eta N-121-A errepedean egiten ari diren lanek izan duten atzerapena ez da esanguratsua, baina beste eragozpen bat da, udazken-negu honetan ingurune horretan izan diren euri-egunei gehitzen zaiena.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Oharra: aipatu argazkiak foru parlamentarien eskura daude 7-09/PES-00053 espedientean, web helbide honetan:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>



## **Galdera, N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du N-133 errepidean eraikitako biribilguneei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez Royo jaunak galdera egin du N-113 errepidean egin diren biribilguneen seinaleztapen, argiztapen eta babesari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

AP-15 errepideko Valtierra lotuneak behar bezalako segurtasun-maila badu ere, zenbait hobekuntza daude egiteke, zehazki honakoak:

– Arriskuaz ohartarazteko seinaleak jartzea led argiez eta eguzki-plakez, N-113 errepidetik sartzan direnzentzat.

– Bi uhineko hesia jartzea, biribilgunearen tarte batzuetan dagoenaren osagarri.

Jarduketa horiek 2009ko apirilean burutuko dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 12an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

## **Galdera, Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomendioak betetzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Comptos Ganberak odol transfusioen zentroari buruzko fiskalizazio txostenean egindako gomendioak betetzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin Osasunaren Plan Estrategikoan jasotako zelulen eta ehunen zentro

edo bankuari buruz (PES-054/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Comptos Ganberak Nafarroako Odol Transfusioen Zentroari buruz egindako fiskalizazio-txostena gomendatzen du Zelulei eta Ehunei buruzko Plan bat prestatzeko aukera aztertzea, eta baita Odol Emateei eta Transfusioei buruzko Plan bat ere, epe ertain eta luzera jarduketa- eta koordinazio-esparru argi bat izateko, Osasun Departamentuaren plan estrategikoen baitan.

2008ko azaroaren 24an, lantalde tekniko bat eratu zen Nafarroako II. Hemoterapia Plana 2009/2012 ontzeko.

Pertsona hauek osatzen dute taldea:

– M.<sup>a</sup> Luisa Ayape Puyales andrea, Nafarroako Odol Transfusioen Zentroaren ordezkari gisa.

– Itziar Ezpeleta Iraizoz andrea, Virgen del Camino Ospitalearen ordezkari gisa.

– M.<sup>a</sup> José Uriz Pascual andrea, Nafarroako Ospitalearen ordezkari gisa.

– Patrocinio Chueca Rodríguez andrea, Tuterako Reina Sofía Ospitalearen ordezkari gisa.

– Milagros Hernández González andrea, sare pribatuko ospitaleen ordezkari gisa.

– Beatriz García López andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Osasun Laguntzako zuzendariordea.

Koordinatzailea: Isabel Ansa Erice andrea, Osasun Departamentuaren Osasun Laguntzako Zerbitzuko zuzendaria.

Taldea zenbait aldiz bildu da eta ongi ari da lanean; gainera, eskatu zaien Hemoterapia Plana barne hartuko duen dokumentua hiru hilabete

inguruko epean helarazteko konpromisoa hartu du.

Ehunen bankuen egoerari dagokionez, lantalde teknikoak erabaki du proposamen bat aurkeztu aurretik Nafarroako egoeraren analisia egitea; horrez gain, eta zehazki Hemoterapia Planaren barruan egonen den proposamena lantzeko, erabaki du taldeari aholku emanen dion kanpoko aditu batengana jotzea.

Beraz, Comptos Ganberak egin duen gomen-dioa zorrotz betetzen ari da.

Hori jakinarazten dizut, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 14an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

## Galdera, emakumeari laguntzeko zentroi buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du emakumeari laguntzeko zentroi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko otsailaren 27ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Emakumeak Artatzeko Zentroi buruz (PES-055/09). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gure datuen arabera, aipatu desoreka ez da ematen antzeko biztanle-kopurua eta ginekologokopuru bera duen zentrozen artean. Bestalde, Osasunaren Arloan Emakumeak Artatzeko Zentroa aukeratzeko askatasuna dago.

Azpilagañako Emakumeak Artatzeko Zentroak 2007an eta 2008an izan duen kontsulta-kopurua honakoa da:

Urtea	Kontsulta kop.
2007	9.545
2008	8.686

Kontuan izan behar da Barañain Azpilagañako Emakumeak Artatzeko Zentroaren azpiunitate bat dela, eta, horregatik, zentro hori osatzen duten langileak hauek dira:

Ermitagaña:

3 ginekologo  
1 erizain + 3 egunez kontratatutako 1 erizain  
3 emagin (horietako bat 2-3 egunez –dagoen lanaren arabera– Zizur Nagusira joaten da).  
1 hezitzaile (Barañainekin partekatua)

Barañain:

1 ginekologo  
1 emagin  
1 erizain

Hori jakinarazten dizut, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2009ko martxoaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

